

Uda amaieran ere, festak Altzan

Igandera arte jaiak izango ditugu Jolastokietako plazan. Koadrilen arteko lehiaketak, haurrentzako hamaika ekitaldi, eta krosa izango ditugu, besteak beste. Los Oscars auzoko taldea ere ariko da.

Aurtengo jaietako kontzertua ostiralean, hilak 10, izango da. Los Oscars auzoko taldeak joko du. Enrique Alonso gitarra jotzaile eta abeslariak, Clemen Fortea gitarra jotzaileak, Fabian Iraola bateria jotzaileak, eta Jose Mari Huarte baxu jotzaileak osatzen dute Los Oscars. Laukoteak eskarmentua du musika munduan. Esate baterako, Fabian Iraola Mal de Ojo taldean ibilia da, eta Enrique Alonso, Calma taldean. Los Oscars-ek "Visto y no visto" maketako hamabi abestiak aurkeztuko

ditu Jolastokietako emanaldian. Taldeko buru Enriqueren hitzetan, "rock dotorea" jorratu dute maketan. Los Oscars-ekin batera, Etxaun taldeak joko du.

Urtemuga

Nabarmentzekoa da, bestalde, igandean, hilak 12, Jolastokietako kultur gunearen urtemuga ospatuko dela. 80ko hamarkada hasieran, Txirrita pasealekuan, 70. eta 72. zenbakidun dorreak egin zituzten, eta Udalak etxabeetako bat utzi zien auzotarrei. Hain juxtu, duela 20 urte hasi ziren



auzotarrak lokala egokitzen, eta bi urte geroago zabaldu zuten. Lokala auzo elkartearen egoitza bilakatu da. Ber-

tan, bilerak egiteaz gain, karate, marrazki, eskulan eta pintura ikastaroak antolatzen dituzte, besteak beste.

Egitaraua

Ostirala 10

- 16:00 Graffitiak Nerekaneko paretan
- 19:00 Suziria botako dute jaietara siera emateko
- 19:15 Erraldoiak eta buruhandiak aterako dira Larretxea ahizpa trikitilariekin.
- 19:30 Lagunarteko futbito txapelketaren finalerdia
- 20:00 Patxaranga la Nuestra txaranga
- 20:30 Sardina jatea
- 23:00 Los Oscars eta Etxaun taldearen kontzertua

Larunbata 11

- 09:00 Diana Larretxea ahizpa trikitilariekin.
- 10:00 Ping-pong txapelketa. Izena Jolastokietako kultur gunean eman behar da

- 10:05 Bizikleta-zinta lasterketa
- 10:15 Malabansmoa
- 10:30 Karate ikuskizuna
- 11:15 Oinezko herri lasterketa
- 11:30 Haur jolas parkea: gaztelu puzgarria, zezen mekanikoa eta kartak
- 12:00 Sokatira-gizonezko eta emakumezkoentzat
- 13:00 Poteoa Larretxea ahizpekin
- 16:00 Jokoak
- 16:05 Tute txapelketako finala
- 16:55 Koadrilen arteko lehiaketak
- 18:30 Txokolate jatea
- 19:00 Erraldoiak eta buruhandiak Larretxea ahizpekin
- 19:30 Eskualde dantzak: Intxaurrondoko, Extremadurako Erregio, Etxeko dantza taldea eta euskal dantza talde bat ariko dira
- 20:00 Futbito txapelketako finala
- 22:00 Herri afaria



- 00:00 Dantzaldia Avenida orkestrarekin
- 01:00 Zezensuzkoa
- 03:30 Baratzuri zopa eta jarraian sarpresak
- Igandea 12**
- 09:00 Diana trikititxak lagunduta
- 10:00 Toka eta bote txapelketa
- 10:30 Jolastokietako Herri Krosa
- 11:45 Animalia erakusketa: poneyak, zezen txak, basurdeak, ahuntzak

- 11:55 Hamaiketako erretratuentzat
- 12:00 Tortilla lehiaketa
- 13:30 Sari banaketa
- 16:00 Mus txapelketaren finala
- 18:00 Alex Babanalek, Santi Galzaok, Erika Carrillok eta Fredy El Vampirok bakarrikzketak aurkeztuko dituzte
- 19:00 Nafarroako jotak Voces Navarras taldearekin
- 20:00 Dantzaldia
- 21:30 Zezensuzkoa
- 22:00 Azken suzeria